



ABANDOKO
SAN BIZENTE MARTIARIEN
PARROKIA

PARROQUIA
DE SAN VICENTE MÁRTIR
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)
T. 94 423 12 96
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Zoaz, zeure sinesmenak sendatu zaitu”

2024ko urriaren 27a
Urteko 30. igandea (B)

Markos 10, 46-52.

Jerikora iritsi ziren. Eta Jesus bere ikasleekin eta jendetza handiarekin hiritik irteterakoan, Bartimeo itsua, Timeoren semea, eskean zegoen bide-ertzean eserita. Jesus Nazaretarra zela jakitean, oihuka hasi zen: -Daviden Semea, Jesus, erruki zakizkit!

Askok gogor egiten zioten, isilarazteko; baina hark areago oihu: -Daviden Semea, erruki zakizkit!

Jesusek gelditu eta hari dei egiteko agindu zuen. Dei egin zioten itsuari, esanez: -Izan bihotz! Jaiki, deika ari zaik.

Bere soingainekoa jaurtikiz, salto batean zutitu eta Jesusengana joan zen. Jesusek galdegin zion: -Zer nahi duzu niregandik?

Itsuak erantzun: -Berriro ikustea, Jauna.

Jesusek esan zion: -Zoaz, zeure sinesmenak sendatu zaitu.

Une berean ikusmena etorri zitzaion berriro, eta Jesusen ondoren zihoan bidean.

Jesusek galdegin zion: -Zer nahi duzu niregandik?
Itsuak erantzun: -Berriro ikustea, Jauna.

BESTE BEGI BATZUEZ IKUSI

Jose Antonio Pagola

Bartimeo itsuaren sendatzea kontatzean, asmo hau izan du Markosek: kristau-elkarteei beren itsutasunetik eta eskastasunetik irten daitezen eskatzea. Horrela bakarrik jarraitu ahal izango diote Jesusi, honen Ebanjelioaren bidetik. Era harrigarrian gaur-gaurkoa da kontakizuna gure egun hauetako Elizarentzat.

«**Bide-ertzean eserita dagoen eskale itsua**» da **Martimeo**. Bere bizitzan gaua bizi du beti. Jesusez hitz egiten entzun du, baina ez du ikusi haren aurpegia. Ezin jarraitu dio. Jesus doan bide ondoan da, baina kanpoan. Ez ote da hori gure egoera? Kristau itsuak, bide ondoan eseriak, Jesusi jarraitu ezinik?

Gure artean gaua da. Ez dugu ezagutzen Jesus. Argi-falta dugu, haren bidean ibiltzeko. Ez dakigu norantz doan Eliza. Ez dakigu ere zer etorkizun nahi dugun Elizarentzat. Gu Jesusen jarraitzaile bihurtzea lortzen ez duen erlijio batean kokaturik, Ebanjelioaren ondoan bizi gara, baina kanpoan. Zer egin genezake?

Bere itsutasuna eta guzti, Jesus bere ingurutik igarotzen ari dela sumatu du Bartimeok. Zerbaitek esaten dio Jesusengan duela bere salbazioa: «**Jesus, Daviden Semea, erruki zaitetz nitaz**». Oihu honek, fedez errepikaturik, sendatu egingo du.

Gaur kexuak eta lantuak entzuten dira Elizan, kritikak, protestak, batak bestea gutxiestea. Ez da entzuten gure itsuaren otoitz apal eta konfiantzazkorik. Ahaztu egin dugu Jesusek bakarrik salba dezakeela Eliza hau. Ez dugu sumatzen Jesus gugandik hurbil dela. Geuregan bakarrik sinesten dugu.

Bartimeo itsuak ez du ikusten, baina gai da Jesusen ahotsa entzuteko, hark bidalitakoen bidez: «**Aupa, jaiki zaitetz, deika duzu**». Horra zein giro sortu beharko genukeen Elizan. Batak bestea animatu erreakzionatzeko. Erlijio konbentzional batean kokaturik ez jarraitzeko. Deika ari zaigun Jesusengana itzultzeko. Hau dugu lehen helburu pastoralak.

Era miresgarrian erreakzionatu du itsuak: jaikitzea eragozten dion soingainekoa bota eta, bere iluntasunean jauzi bat eginez, Jesusengana hurbildu da. Eskari bakar bat irten zaio bihotzetik: «**Maisu, ikusi ahal dezadala**». Begiak irekitzen bazaizkio, dena aldatuko da. Kontakizunak, bukatzeko, dio itsuak bista eskuratu duela eta «**bidean jarraitu ziola**» **Jesusi**.

Hau bera da kristauak gaur egun behar dugun sendatzea. Eliza eralda lezakeen jauzi berezia. Jesusi begiratzeko era aldatzen badugu, haren Ebanjelioa beste begi batzuek irakurtzen badugu, haren mezuaren jatorrasuna sumatzen badugu eta gizatasun handiagoko mundu bat egiteko haren egitasmoak liluratzen bagaitu, Jesusen indarrak erakarriko gaitu. Gure elkarteek ezagutu dute, hari hurbiletik jarraituz, bizitzearen poza.